



## AUZO-EZTABAIDAGUNEAREN LABURPENA

### 2. TXANDA. 2019

#### BUZTINTXURI

<b>Data:</b>	19/02/12
<b>Ordua:</b>	18:30
<b>Tokia:</b>	Buztintxuri Ikastetxe Publikoa
<b>Auzoko zinegotzia:</b>	Mikel Armendariz
<b>Parte-hartzaileak:</b>	11 (5 emakume eta 6 gizon)
<b>Alorreko erreferentziako teknikaria:</b>	Ana Etxaleku
<b>Moderatzailea:</b>	Gabriel de Diego (Herritarren parte-hartzea dinamizatzeko zerbitzua)

#### Gai zerrenda:

1. Hasiera.
2. Udala berriemaile:
3. Auzoa berriemaile:
4. Udala adi.
5. Amaiera.

#### Hasiera

Gabriel de Diego teknikariak hasiera eman dio saioari bertaratuei ongi etorria eginez eta horien parte-hartzea eskertuz. Mikel Armendariz Buztintxuri auzoko zinegotziari zein auzo-eztabaidagunean dauden udalbatzako beste kideei ere ongi etorria egin die. Gogoratu du saio hau bosgarren auzo-eztabaidagunea dela eta ordu eta erdi iraunen duela.

Eztabaidagunean izanen diren parte-hartzeen aurretik, de Diegok honako alderdi hauek azpimarratu ditu:

- Herritar aktibo gisa izena emateko aukera, horretarako bertaratuen eskura jarritako fitxetan.



- Haurrendako ludoteka-zerbitzua erabiltzeko aukera, 4 eta 12 urte bitartekoentzat erabilgarri eztabaidagunea gauzatu bitartean. Hori erabiltzeko, aurreko asteko asteleheneko 20:00ak baino lehen jakinarazi behar da.
- Bertaratuei jakinarazi die saioa Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorraren YouTube kanalaren bidez streaming-en ematen dela.
- Berritasun gisa, jakinarazi da proposamenak eta galderak egin daitezkeela Erabaki plataformaren bidez ([erabaki.pamplona.es](http://erabaki.pamplona.es)); online parte hartu ahalko da egun horretako 19:30era arte, hori baita gerora bateratze-lana egin ahal izateko muga-ordua.

Ohar horiek partekatuta, eztabaidagunearen egitura azaltzeari ekin zaio.

- **Hasiera:** Gabriel de Diego, Herritarren Parte-hartzea dinamizatzeko Zerbitzuko teknikaria
- **Udala berriemaile:** Mikel Armendariz zinegotziak auzoan egin diren inbertsioak komentatuko ditu, Paloma Goñi udal-soziologoak Iruñeko Hiri Plan Estrategikoa azalduko du, eta Gabriel de Diegok *Iruñategi* mapa aurkeztuko du.
- **Auzoa berriemaile:** Hodei, Buztintxureando Txurikoa; eta Edurne, Unzu Txiki berrikoa.

**Udala adi.** Mikro irekiko tartea hasi da, eta bertaratu guztiek aukera izango dute zinegotziari egokitzat jotzen duten oro proposatu, galdetu eta kontatzeko.

## Udala berriemaile

### Mikel Armendariz Buztintxuri auzoko zinegotzia

Armendarizek hartu du hitza, eta, hasteko, eskerrak eman dizkie bertaratutakoei eta eztabaidagunea online jarraitzen dutenei.

Azpimarratu du eztabaidaguneen azken erronda dela hau legegintzaldi honetan, eta horregatik egokia iruditzen zaio laburpen bat egitea auzokoei jakinarazteko auzoaren alde egin diren gauzak eta egin ezin izan ez direnak.



Lehenik eta behin, Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioa aipatu du, Trenbideko kalean dagoenaren osagarri gisa, auzoaren esku jarri baita Gipuzkoako etorbidean. Komentatu du, baita ere, orain Erraldoien plaza deitzen den hori egokitu izana auzoko plaza nagusi gisa, bertan ospatzen baitira gertakari gehienak. Ondoren, aipatu Erraldoien plaza hori izena emateko auzoan sortutako mugimenduaren berri eman du; azkenean, prozesu partizipatibo baten ondoren izena eman zitzaion, Udalaren onspenarekin. Armendarizek Komunitate polizia aipatu eta aurkeztu du, Emilio, eta berriz ere esan die bertaratuei edozein zalantza edo galdera izanez gero eztabaidagunean berean egin dezaketela. Udalak Buztintxurin egindako beste apustuetako bat da haur eta gazteendako arreta eta prebentzio zerbitzua ezartzea auzoan. Kasu honetan hitzarmena egin da lehendik ere auzoan lan hori egiten ari zen elkarte batekin: Buztintxureando Txuri.

Aipatu du, baita ere, areto bat laga zaiola Unzu Txiki elkarteari, lehen beharren batzordea deitzen zenari, zeinak elikagai-bankuarekin elkarlanean elikagaiak behar duten herritarrei zerbitzua ematen baitie. Lagapen hori sinatu arte, iazko urte amaieran, elikagaien banaketa Zentro komunitarioak egiten zuen. Armendarizek esan du lagapen horren kudeaketa ez dela erraza izan, baina Udalaren aldetik egina dagoela.

Bi jarduketa garrantzitsu ere izan ziren zirkulazioa baretzeari dagokionez, horietako bat auzokoen eskariz eta bestea istripu asko egoten zirelako eta halako batean hildako bat ere egon zelako. Horietako bat Trenbideko kalean zegoen, non ibilgailuen abiadura handiegia baitzen, eta errepideko konkorrak jarrita konpondu zen. Bestea konpontzeko semaforoak jarri ziren Gipuzkoa etorbidean, istripuak izaten ziren eremuan. Trenbideko kalearen 2ko eraikina eraisteari dagokionez, berehala jarriko da martxan, eta horrek ekarriko du espaloia zabaltzea eta bidegorria handitzea, eta horrela etorbidean dagoenaren antzera geratuko da.

Jarraian, Armendarizek Udalak arrazoi bat edo bestea dela legegintzaldi honetan erantzun ezin izan dituen herritarren eskariei buruz hitz egin du; horietako bat ikastetxe publikoko patioa da, ezin izan baita konpondu euria egiten duen egunetan ura sartzea eta, ondorioz, edozein kirol-jarduera bertan behera utzi behar izatea. Hiriko beste ikastetxe batzuetan arazoa konpondu duten beste alternatiba batzuk aztertu dira, baina eskola honetan ez dira bideragarri izan. Esku-hartze hori egin ez bada ere, egin izan dira beste batzuk ikastetxean, esate baterako usoen aurkako sarea jartzea eta beste bi obra.

Huts egin duen beste gai bat hiri baratzearena da; Armendarizek esan du espero duela hori bultzatu ahal izatea.

Auzoa Arrotxapearekin lotuko duen zaldainari buruz, balorazio ekonomikoaren gaineko ikerketa bat egitea espero da, baina oraindik zain dagoen proiektua da.

Amaitzeko, aipatu du Udalaren eta auzotarren arteko akordio bat, NUPekin elkarlanean egitekoa, baina oraindik garatzen ari dena. Proiektua aisialdiko instalazio komunitarioei buruzko ikerketa baten ingurukoa da, auzoan egitekoak, horri dagozkion alorrak sartuta (Kirola, Komunitate Garapena, Proiektuak eta Ogasuna), eta NUP ere bai, hura baita sustatzailea auzoarekin batera. Parte-hartzea ixteko Armendarizek esan du espero duela datozen asteotan bilera bat egin ahal izatea gai hori sakon lantzeko.



### **Paloma Goñi, Iruñeko Udaleko Estrategia Bulegoko teknikaria**

Paloma Goñik hartu du hitza, eta Iruñeko Hiri Plan Estrategikoa azaltzeari ekin dio.

Testuingurua jartze aldera, Estrategia Bulegoko teknikariak laburki azaldu du plan estrategikoa tresna bat dela, helburu duena herritarren, eragile sozialen zein ekonomikoen eta erakundeen artean definitzea zer hiri-eredu nahi den, eta, horrez gain, hori lortzeko egin beharreko bidea zedarritu nahi duena. Halako planak epe ertain-luzean diseinatu eta garatzen dira, 10 urteko ikusmugaz, gutxi gorabehera, horrela bide emateko lankidetzak publiko-sozialari Udalaren zein erakundeen eta eragile sozialen eta ekonomikoen artean, betiere hiriko eta bertako herritarren bizi-kalitatea hobetze aldera.

Tresna honek aukera ematen digu hiriaren etorkizunean pentsatzeko, orain dauden edo sor litezkeen erronkak eta arazoak identifikatzeko, eta, baita ere, hiriak zailtasun horiei aurre



egiteko dituen indarguneak eta aukerak antzemateko. Edonola ere, eta teknikariak zehaztu duenez, plan hau ez da “panazea”, ezta ohiko plan estrategiko bat ere. Plana alde batera, proiektuek etengabeak izan behar dute, eta prozesua bera ere aintzat hartu. Plan horiek etorkizunerako diseinatu nahi den hiri-eredua adostea bilatzen dute, eta helburu hori lortzeko jarraitu beharreko bidea zehazten dute. Adibide gisa aipatu diraartzelona, Bilbo eta Donostia, horiek erreferente baitira, estatuan, metodologia horren ezarpenean.

Gero, eta munduko beste hiri batzuetan abiatutako plan estrategikoen erreposoa egin ostean, Paloma Goñi teknikariak zenbait zehaztapen egin ditu *Pamplona-Iruña! 2030* Hiri Plan Estrategikoaz bezainbatean:

Zergatik prestatu Hiri Plan Estrategiko bat? Iruñeko Udalaren nahiak eragin du plan estrategiko hau sustatzeko eta etorkizunerako nahi dugun hiri-eredua zehaztuko duen hiri-plangintza estrategikorako prozesuaren buru aritzeko motibazioa, Goñik baieztatu duenez.

Zer ekartzen du? Hiriaren beraren plan bat da, zeinerako epe luzerako konpromisoa behar den herritarren eta eragile sozialen partetik; baina beharrezkoa da, baita ere, konpromiso politikoa, legegintzaldien eta eztabaida alderdikoen gaintetik egon behar duena.

Zertarako? Eraitza orokorrek eragina izango dute batez ere garapen ekonomiko eta sozialean, lankidetzaren publiko-pribatuaren sustapenean, herritarren partaidetzaren sustapenean eta hiriaren estrategia orokor eta integralean.

Non? Aplikazio-esparrua Iruña da, baina kontuan hartuko da, beti, Iruñerriko metropoli-eremua, Nafarroako erkidegoaren testuingurua eta estatuko eta Europako testuingurua.

Noizko? Denborari dagokionez, plana 10 urterako proiektatu da, 2020 eta 2030 urteen artean. Tarte horretan epe labur, ertain eta luzerako helburuak diseinatuko dira. Horretaz gain, epe horrek aukera ematen du NBEaren 2030 Agendarekin eta garapen jasangarriko helburuekin bat egiteko.

Nor? Eragileak: Lidergoa Udalarena da, alkatearen bitartez. Horretaz gain, sektore publikoa, sektore pribatua, elkarte-ehuna eta herritarrak ere badira eragile.



Nola? Iruñeari dagokionez, hiriak dituen eta izango dituen erronka eta desafioak identifikatzen hasiko da. Ondoren, diagnostiko sakona egingo da gai kritikoei buruz, eta, gero, prospektiba eta etorkizunean izan daitezkeen agertokiak eratzeko lana egingo da, azkenik plangintza eta proiektuen, programen eta jarduketan diseinua egiteko. Azkenik, plana bete eta horren segimendua egingo da.

Arazo eta gai kritikoak identifikatu eta gero, lurraldearekin lotuko dira, jakiteko horietako zein dagoen errotuago auzo bakoitzean. Horretarako, lurraldearen arabera lantaldeak sortuko dira 2019ko otsailetik maiatzera, eta horiek auzoei aukera emango diete zuzenean lan egiteko hala gai kritiko horien analisisian nola horiei aurre egiteko proiektu eta jarduketan plangintzan.

Lantalde horietaz aparte, beste bitarteko batzuen bidez ere parte hartzen ahalko da Plan Estrategikoan: azaroan eta abenduan egin den inkestaren bidez, erabaki.pamplona.es online plataformaren bidez, HPE foroaren saioetan (aurreikusitakoaren arabera urtarril hasieran egingo da), pamplona.es webgunean eta Twitter eta Facebook sare sozialetan.

Berlaratuetako batek egindako galderari erantzunez, teknikariak erantsi du lehen fasea amaitzen ari direla, eta fase horren barruan aurre-diagnostiko bat egin dela, askotariko tresna metodologikoen bitartez, zenbait gai estrategiko antzemateko. Azaldu duenez, hortik lortutako datuak Plan Estrategikoaren egitura osatzen duten beste gune organiko batzuetan alderatuko dira gerora, hauetan besteak beste: 20-30 biltzarrean, non udal-talde guztiak dauden ordezkaturik; 20-30 batzordean, hiriko eragile nagusiez osatuan, eta 20-30 foroan, herritar guztiek parte hartzeko zabalik dagoen foro irekian. Behin gai estrategiko horiek alderatu ostean, galbahe bidezko hautaketa egin eta 10 soilik geratuko dira; uneotan alegazioak biltzeko fasea dago abian, eta [oficinaestrategica@pamplona.es](mailto:oficinaestrategica@pamplona.es) helbide elektronikoaren bidez edo Erabaki plataformaren bidez helarazi daitezke, azken horretan ere Planari buruzko argibide gehiago ere aurki daitezkeelarik.



### **Gabriel de Diego, Herritarren parte-hartzea dinamizatzeko zerbitzuko teknikaria**

De Diegok hartu du hitza Iruñategi proiektua aurkezteko. Mapa fisiko bat erabili du, bertaratutako guztiek eserlekuetan dutena, proiektua azaltzeko, eta esan du urtebeteko lanaren fruitua dela, Partaidetzako alorrak eta, zehazki, berak ordezkatzan duen zerbitzuak egindakoa. Azaldu du mapan agertzen direla auzoak dituen baliabide guztiak, zer populaziori zuzentzen zaion, nolakoak diren eta zer jarduera eskaintzen duten kontuan hartuta saikatu.

Azpimarratu du mapa hori argazki finko bat dela, 2018ko maiatzeko inpresio-data duena, eta horrek esan nahi du aldaketak izan daitezkeela kontaktuetan, kokapenetan, etab. Hori dela eta, azaldu du alorra lanean ari dela web bertsio bat egiteko, Iruñategiko baliabide guztiak etengabe eguneratzeko aukera izateko. Azkenik, aipatu du aldaketaren bat edo baliabide berriren bat sartzeko Alorrarekin harremanetan jarri besterik ez dutela egin behar.

Parte-hartzea amaituta, txanda eman dio Buztintxureando Txuri elkarteko Hodeiri.

### **Auzoa berriemaile**

### **Buztintxureando Txuriko Hodeiren parte-hartzea**

De Diegok “Auzoa berriemaile” atalean parte hartuko duten lagunak aurkeztu ditu; hasteko, Buztintxureando Txuriko Hodei.

Hodeik bertaratutakoak agurtu ditu eta aukera baliatu du zinegotziari gogorarazteko Buztintxureando Txuri elkartearen lehenengo ere, ofizial egin baino lehen, lanean ari zela, arreta komunitarioko prebentziorako zerbitzu gisa.

Ondoren, Hodeik bere burua aurkeztu du Buztintxureando Txuriko kide gisa eta, baita ere, Buztintxuriko kolektiboen sareko kide gisa. Azaldu du auzoko aretoei eta Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioari izena emateko abiatu zen prozesua, non lanean aritu baitziren ikastetxe publikoko zenbait ikasgela jolasen eta zenbait dinamikaren bidez; horietan auzoaren historia azaldu zitzaizen, eta horren arabera proposamenak egin ahal izan zituzten; gaur egun horretan ari dira. Auzoaren egunean, maiatzean, izen berria aurkeztuko da eta aretoa pintatuko da.



### **Unzu Txiki Berriko Edurneren parte-hartzea**

Edurnek hartu du mikrofonoa, eta bere burua Unzu Txiki Berri elkarteko kide gisa aurkeztu du. Azaldu du borroka handia egin eta gero Udalak lagatuko areto bat inauguratzear daudela. Adierazi du proiektu hori elikagaiak banatzeko proiektu baten azkena dela. Eskerrak eman dizkio Edurne Eguino udalbatzako kideari, laguntza handia eman baitie elkartearen eratzeko. Aretoa udaberrian inauguratzea espero du.

Ondoren, beste proiektu baten berri eman du, irakurketari eta liburuak maileguan emateari buruzkoa. Liburutegi komunitario bat sortzea auzoko gazteendako, eskuragarria eta ordutegi zabala izanen duena, lantegiak egiteko aukera emanen duena, etab. Ideia da boluntarioek kudeatzea, jendea etengabe egon ahal izatea. Proiektu hori udaberrian hasiko da, esan du Edurnek amaitzeko.



## Udala adi

De Diegok hartu du hitza eta azaldu du atal honen helburua dela Udalak entzutea egoki jotzen diren proposamen eta alegazio guztiak, eta gogorarazi du bertan daudela Emilio, auzoko komunitate polizia, eta Paloma, bulego estrategikoko kidea, sor daitezkeen zalantza guztiei erantzuteko. Parte hartzeko arau oinarrizko batzuk gogoratu ditu.

Bertaratutakoei mikrofonoa eman baino lehen Armendarizek iruzkin bat egin dio Hodeik aipatutakoari, eta esan du badakiela Buztintxureando Txuri elkarte lehen ere existitzen zela, baina bere garaian Udalaren apustu bat izan zela elkarte horrek laguntza ekonomikoa, aretoen lagapena eta beste jasotzen jarraitzeko. Ez zuen ulertarazi nahi Udalak sortu zuela elkarte, baizik eta pentsatu zuela Buztintxuri auzoak halako laguntza bat behar zuela.



Buztintxureando Txuriko kidea den auzokide batek hartu du hitza eta esan du ez duela sentitzen Udalaren apustu bat izan zenik, baizik eta Udalak auzoan hasieratik zegoen borroka bat hartu zuela, eta gogorarazi du batez ere auzokideen borroka izan dela.

Armendarizek alegazioa onartu du.

Unzu Txiki Berriko Eburnek hartu du hitza eta esan du bi entitate horiek auzotarren eskari baten ondorio direla, eta Udalak eskaria jaso egin duela; zinegotziak iruzkina baieztatu du.

Auzokideak jarraitu du eta bi eskari egin ditu: auzotik Sanduzelairantz ateratzeko eskaileretan eskudelik ez dagoela eta horrek erortzeko arriskua dakarrela, eta ikastetxe ondoan dagoen txakurrentzako parkearen egoera txarra, putzuak sortzen baitira eta ez dago ez argiztapen nahikorik ez iturririk.



Armendarizek eskariak jaso ditu eta dagozkien alorretara helaraziko ditu.

Auzoan bizi den bertaratutako batek kirol-instalazioak eskatu ditu Osasun Etxeko plazaren atzealdean eta auzoko beste lursail batzuetan, eta zinegotziak eztabaidagune honetan lehenago ere aipatu den lankidetzaproiektua, NUPekin egitekoa dena, gogorarazi du.

Edurnek hitza hartu du berriz aurreko parte-hartzea eskari batekin osatzeko; auzo honetako zaharrei ere zuzendutako instalazioak eskatu ditu. Armendarizek berriz aipatu du azaldutako proiektua, eta espero dute berehala jaioko dela.

### **Amaiera**

Parte hartzeko eskari gehiagorik ez dagoenez, De Diegok bertaratutakoei etorri eta parte hartu izana eskertu die eta gogorarazi du Erabaki.pamplona.es webgunea dagoela, non eztabaidagune honi buruzko informazio zehatza aurkitzen ahalko duten, bai eta aurretik egindako guztiena, bai eta egiten ari diren udal-prozesu guztiak.

Armendarizek berriz ere eskertu du legegintzaldi honetako azken auzo-eztabaidagunean parte hartzea eta amaitutzat eman du saioa.

#### **Zentro. Elkarlaneko gunea**

**Kondestablearen jauregia. Kale Nagusia, 2, 2. solairua. Iruña**

**948 420266**

**[participacionciudadana@pamplona.es](mailto:participacionciudadana@pamplona.es)**

**participa.pamplona.es**

**erabaki.pamplona**